

193. FITXA. ARABA – Arabako Lurralde Historikoko udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko enklabeak sustatutako kultura-ekimenak garatzeko dirulaguntzak, 2026rako

Nori zuzenduta: Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak udalak eta kuadrillek, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

Sartzeko esteka: [Dirulaguntzen deialdia, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñu enklabeak udalek eta kuadrillek sustatutako kultura ekimenak garatzeko - egoitza](#)

Erreferentziazko arauak: [326/2025 Foru Agindua, azaroaren 27koa. Arabako Lurralde Historikoko udalek eta kuadrillek eta Trebiñuko enklabeak sustatutako kultura-ekimenak garatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia onartzea](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 90.000 € (1. modalitatean, 20.000 €; 2. modalitatean, 70.000 €)

Aurkezteko epea: 2026/02/04

Laburpena

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeak udalei eta kuadrillei, **2026ko ekitaldian kultura ekimenak gauza ditzaten**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Kultura sustatzeko programa irekiak lagundu ahal izango dira diruz, edozein alderditan.

Bi dirulaguntza modalitate ezartzen dira:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitezkeen aurrekontua 5.500 eurokoa edo txikiagoa duten kultura proiektuak.
- 2 modalitatea: diruz lagundu daitezkeen aurrekontua 5.500 euro baino gehiagokoa eta 20.000 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak.

Entitate eskatzaileek **proiektu bakarra** aurkeztu dezakete, eta bi modalitateetako bat aukeratu behar dute aurkezteko.

Laguntzen zenbatekoa

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren **ehuneko 60** ere, eta entitate eskatzaileak gainerako ehuneko 40a daukala ziurtatu beharko du. 2 modalitatean, horrez gainera, entitate bakoitzeko 7.000 euroko dirulaguntza muga ezartzen da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero **350 eurora** heltzen ez diren eskaerek.